



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016KO ABUZTUAREN SEKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2016.08.05
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- Justo Larralde Ordoqui jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.- Lourdes Mutuberria Picabea: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.- Udalbideren eskaera.
- 5.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 6.-Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zerga.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko uztailaren 22an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.- JUSTO LARRALDE ORDOQUI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Puntu hau mahai gainean utzi da aztertzeko.

3.- LOURDES MUTUBERRIA PICABEA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Lourdes Mutuberría Picabea andreak, Arruneko Borda alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 4. poligonoko 74 eta 78. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lourdes Mutuberría Picabea andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.- UDALBIDEREN ESKAERA.

Gai hau mahai gainean utzi da eurekin egon arte.

5.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak igorritako diru laguntza eskaera 2016ko helburua eta kudeaketa plana erantsiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

6.-ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA.

Obra egiteko aurkeztu behar diren eskaerak eta ordaindu behar direnak zehaztea beharrezkoa ikusten da.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bizilagunei exijitzea edozein obra dela ere, ttikiena baita, eskaera aurkeztea, barneko margotze lanak izan ezik.

2) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eskatu behar diren obra guztiei kobratzea ondorengo izan ezik: margotze lanak, zerrakurak egitea, bideak moldatzea eta herriko sareko ez den ura hartzeko lanak.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 98. ebazpenetik 105. ebazpena arte.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

9.-MENDIKO LANAK.

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emandako 593/2016 eta 618/2016 ebazpenen bidez, diru laguntza lortu du Udal honek eskatutako mendiko lanak burutzeko.

Kontuan hartuz azpiegituren obrak ez direla eginak (Iturpo, Buruitza-Itsaszelaieta, Zerradoko Borda-Ametxoko, Tuaneko Borda-Amekurrun, Senberroko Borda-Idoia, Ekaitza, Soraeta-Negusoro eta Muniltzako pistak).

Kontuan hartuz diru laguntzak arautzen dituen deialdian obrak bukatzeko eta dena justifikatzeko ezarritako epea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Obrak esleitzeko baldintza plegua onartzea.
- 2) Gonbidapena igortzea ondorengo enpresei abuztuaren 24rako proposamenak aurkezteko: Sasoi eraikuntzak S.L., Peio Aginaga Macicior, Mikel Ubiria eskabazioak S.L., Javier Alzugaray S.L., Berdabio basogintza eta Iñaki Taberna Iturria.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena in.



[Handwritten signature in blue ink]

